

## SECCION AMENA.

### ERANZUERA EGOKI BAT.

Konpesiorik gabe zegoen  
 Apaiz baten jaiera zan,  
 Zituen diru pišar guziak  
 Gastatutzea obretan.  
 Bildu zituen uda batean  
 Zazpi edo zortzi argiñ,  
 Eta zelaian zion alchatzen  
 Pareta aundi bati ekiñ.  
 Libre zegoen ordu geienak  
 An zituen iragotzen,  
 Kontu artuas, gaitzik gabeko  
 Gauzetan chuleatutzen.  
 Aen artean arkitzen zan bat,  
 Buruz biziro ernea,  
 Eta apaizak arekin zuen  
 Egunoro itzbidea.

Langille charra maiz izan oi da  
 Mingañez guztiz abilla;  
 Aterik etzan ark billatuko  
 Etzionik maratilla.  
 Egun batean galdetzen dio,  
 Leunkiró apaiz jaunak:  
 —¿Zer uste dezu, bada ez dira  
 Gizon guziak berdiñak,  
 Arri landutzen sekula jakiñ  
 Gabeko argiñ bat dala?—  
 —Jauna, ez beza bada pensatu  
 Gogoratu etzaidala,  
 Baña...—Gizona, mintzatu zaitaz  
 Etzaitetz izan orrela:  
 —*Konpesatzeko lizentzirik ez  
 Duen apaiz bat bezela.*—

CLAUDIO OTAEGI-KOAK.

Ondarribian Agorraren 23.<sup>an</sup> 1882.<sup>an</sup>

## ASKANTZAK.

**II<sup>garren</sup> SOMAKETARENA.**

**AGORRA.**

**III<sup>garren</sup> MUTADI EDO ISITZARENA:**

Igazko kabiyak utsik, ez da an aurten choririk.